ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA.

1. Zer gerthakari bazen Herri batean?
2. Jendeek maite zutena Erregearen alaba?
3. Ellandeek maitezuena Erregearen alaba? Bestalde zer gerthakari zitzaion?

## 7. ARTZAINA ERREGE

### 1

Duela aspaldi aspaldi, Errege baten alaba arras eri zen.

Alde guzietako medikuak izanak omen zitzaizkon, zela Español, zela Angles, zela Frantses, eta batzuek ez bertzeek ezin senda! Erregeren alaba bethi geroago eta gaizkiago zoan, eta bazterrak ilhun[1] ziren herri guzian.

Denetan fama barraiatua zen, mendi, zelai eta xokomoko guzietan, eta Ellande Artzainak berak bazakien bere mendi kaskoan. Eta, harek ere, bertze guziek bezala, hainitz bihotz-min[2] bazuen. Eta futxo, deusik ezin egin!...

* * *

Egun batez, Erregeren alaba bethi gogoan, harat hunat bazabilarik mendian, ohartzen da Ellande, ardi bat eskas duela arthaldetik. Zer egiten du? Bere ardi guziak sartzen ditu etxolan, eta abiatzen da, gauaren-gauerdi, bere ardi errebelatuaren ondotik.

Gau-erditik oren bateko heinean, mendixka batean zoalarik, bet-betan, hor, sekulako burrunba aditzen du... Beha eta beha emaiten da; bainan, nola arras ilhun baitzen, ez du deusik ikusten. Urrunago badoa; burrunba are handiago. Izitzen da, eta ondoan zuen arbola handi baten gainerat igaiten...

## Ⓘⓘⓘ ADITZ IKASKUNTZA

31. Omen zitzaizkon 32. Berak bazakien
33. Bazabilarik 34. Zoalarik
35 Badoa.

**31. IZAN - Régime indirect. Indicatif Imparfait**

**Pluriel** — Hek ziren = ils étaient

Hek (eux) zitzaizkitan (à moi) = ils m'étaient
zitzaizkizun (à vous) = ils vous étaient
zitzaizkion (à lui) = ils lui étaient
zitzaizkigun (à nous) = ils nous étaient
zitzaizkizuen (à vous) = ils vous étaient
zitzaizkien (à eux) = ils leur étaient

(Vous autres) Zuek zinezten = vous étiez

Zuek (vous) zintzaizkidaten (à moi) = vous m'étiez
zintzaizkioten (à lui) = vous lui étiez
zintzaizkiguten (à nous) = vous nous étiez
zintzaizkieten (à eux) = vous leur étiez

**33. IBILI = Marcher - Indicatif.**

| PRESENT | IMPARFAIT |
|---|---|
| Ni nabila = je marche | N. nindabilan = je marchais |
| H. habila = tu marches | H. hindabilan = |
| Zu zabiltza = vs marchez | Z. zinabiltzan = |
| Hura dabila = il marche | H. zabilan = |
| Gu gabiltza = ns marchons | G. ginabiltzan = |
| Zuek zabiltzate = vs marchez | Z. zinabiltzaten = |
| Hek dabiltza = ils marchent | H. zabiltzan = etc |

| SUBJONCTIF PRÉSENT | IMPERATIF. |
|---|---|
| N. nabilan = que je marche | Habil = (va) marche |
| H. habilan = que tu marches | Zabiltza = (allez) marchez |
| Z. zabiltzan = que vs marchiez | Gabiltzan = (allons) marchons |
| H. (da)bilan = | Zabiltzate = (allez) marchez |
| G. gabiltzan = | |
| Z. zabiltzaten = | |
| H. dabiltzan = etc | |

**32. JAKIN: Indicatif Imparfait.**

| C.D.S | C.D.P. edo |
|---|---|
| Nik nakien = je le savais | N. nazkien (nakizkien) = je les savais |
| Hik hakien = tu le savais | H. hazkien (hakizkien) = tu les savais |
| Zuk zinakien = vs le saviez | Z. zinazkien (zinakizkien) = vs les ... |
| Harek zakien = il le savait | H. zazkien (zakizkien) = il les ... |
| Guk ginakien = ns le savions | G. ginazkien (ginakizkien) = |
| Zuek zinakiten = vs le saviez | Z. zinazkiten (zinakizkiten) = |
| Heiek zakiten = ils le savaient | H. zazkiten (zakizkiten) = etc |